

PONPEIA

ERROMATAR HIRIA

OCTUBRE DE 2019 • EDICIÓN 10 • VOLUMEN 12



AZKEN BERRIAK

VESUBIO, IA 250 URTEKO LEHEN ERUPZIOA PONPEIAN



By Gaztainadi

Photographs by Artazugoiko

Ponpeia Vesuvio sumendiaren magalean zegoen erromatar hiri oparoa zen. K.o. 79. urteko abuztuaren 24an eguzkia ageri zen zeruan. Goizean goizetik, hiriko kaleak jendez bete ziren: batzuk azokara edo tenplura ihoazen, beste batzuk paseatzera irten ziren...

Eguerdian, Vesuvio sumendia orroka hasi zen, eta haren barnetik ke trinkoa hasi zen irteten, zerua estaltzeraino. Ez zegoen arnasa hartzerik. 2.000 pertsona inguru hil ziren kearen gas pozoitsuek itota.

Abuztuko egun hartan, Ponpeian denbora gelditu egin zen. Hiriko kaleak, etxeak, monumentuak, pertsonen gorpuak... Vesuvio sumendiak botatako laba solidotuaren azpian egon ziren ehunka urtetan zehar, XVIII. mendean arkeologo batzuek erromatar hiri haren hondakinak aurkitu zituzten arte.



NOMADIC | 24